

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai urriaren 22an

Emakumeak abstrakziogile

Babeslea:

Fundación
BBVA

BBVA Fundazioarentzat harro egoteko modukoa da erakusketa handi hau antolatzen lagundu ahal izatea, lehen lerroan jartzen baitu emakume artistek abstrakzioaren sustraian eta bilakaeran, eta bere alderdi desberdinetan, betetzen duten eginkizuna. Ikuspegi kronologiko eta diziplina anitzeko batekin, *Emakumeak abstrakziogile* erakusketak, mundu osoko ehun emakume sortzaile baino gehiagoren lanaren bidez, abstrakzioaren historiaren aurrekaririk gabeko berrinterpretazio bat aurkezten du. Askotariko ahotsak oinarri hartuta, erakusketak ikuspegi zabala eta konplexua eskaintzen du, sortzaile horietako bakoitzaren ekarpen espezifikoak nabarmenduta, orain arte jaso duten aintzatespena edozein izan dela ere.

Erakusketak XX. mendeko itzal handiko emakume bildumagile batzuk ere omentzen ditu, Peggy Guggenheim eta Hilla Rebay, besteak beste: abstrakzioak artearen historian izango zuen garrantzia aurreratzen jakin zuten emakumeak, horrelako obrekin munduko bilduma garrantzitsuenetako batzuk hasi zituztenak.

BBVA Fundazioarentzat oso pozgarria da arte-sorkuntzaren aniztasuna eta, zehazki, abstrakzioa azpimarratzen dituen erakusketa hau babestea. Honakoa bezalako proposamenek, Guggenheim Bilbao Museoa eta Parisko Centre Pompidou bezalako erakunde garrantzitsu bik elkarrekin antolatua kasu honetan, aukera ematen dute iraganean bazter utzitako edo gutxietsitako artista gailen horien azterketan sakontzeko eta haiek balioan jartzeko.

Ziur gaude Museoko publikoak gozatu egingo duela erakusketa hau bisitatzean, aukera ematen baitigu bertan bildutako obrak miresteko; obra bereziak izatez, baina baita esanahi handikoak ere, modernitatearen emakume aitzindari ugariren funtsezko zeregina nabarmentzeko balio dutelako.

Carlos Torres Vila

BBVA Fundazioaren Presidentea

Emakumeak abstrakziogile

- Datak: 2021eko urriaren 22a - 2022ko otsailaren 27a
 - Komisarioak: Christine Macel, Arte-arduradun nagusia, Centre Pompidou; eta Karolina Lewandowska, Argazki-arduradun eta Varsoviako Museoko Zuzendaria; Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna den Lekha Hileman Waitollerren laguntzarekin
 - Parisko Centre Pompidouk antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoren laguntzarekin.
 - Babeslea: Fundación BBVA
- *Emakumeak abstrakziogile* erakusketaren xedea da emakume artistek abstrakzioari egin dioten ekarpenaren historia idaztea. XX. mendea aztertuko da, 1980ko hamarkada arte gutxi gorabehera eta sartu-irtenen bat eginaz XIX. mendera.
- Izenburuak berak dioen bezalaxe, erakusketan bilduriko emakumeek modernitatearen eta bere legatuaren sortzailekide eta egile papera dute, merezimendu osoz.
- Artista hauen lana ikusezin bihurtu zuen prozesua ere agerian uzten du erakusketak eta, halaber, emakume artisten posizionamenduak aurkezten ditu, beren konplexutasun eta paradoxa guztiekin. Artista hauetako askok generorik gabeko nortasun bat barneratu zuten. Beste batzuek, aitzitik, arte “femenino” baten alde egin zuten.
- Kontakizun honek irekia izan nahi du eta hedatua izan da dantza, dekorazio-arteak, argazkigintza eta zinemagintza ere barne hartzeko. Halaber, ahalik eta zabalena izan nahi du eta Latinoamerika, Ekialde Ertaina eta Asiako modernitatea ere erakutsi nahi du, bai eta zenbaitetan nazioarteko aitortza lortu ez duten artista afroamerikar eta espainiarrak ere, ahots ugariko historia bat osatu eta mendebaldeko kanonaz haraindi joan ahal izateko.

Guggenheim Bilbao Museoak *Emakumeak abstrakziogile* erakusketa aurkezten du. Fundación BBVA erakundeak babestu duen erakusketa honek abstrakzioaren historiaren ikuspegi berri bat eskaintzen du, bere hastapenetatik 1980ko hamarkadara arte, arte plastikoak, dantza, argazkigintza, zinemagintza eta dekorazio-arteak landu zituzten ehun emakume baino gehiagoren lanen bitartez. Kronologiaren araberako analisi bati jarraituz, erakusketak artista hauek ikusezin egin zituzten prozesuak agerian uzten ditu eta abstrakzioaren historia markatu zuten zenbait zedarririk iradokitzen ditu. Erakusketak kanon estetikoak ezbaian jartzen ditu horrela, kanon berririk eskaintzen ez duen arren.

Artearen historia praktika aitzindari ezberdinen segidatzat hartzen duen ideiaz haraindi doa *Emakumeak abstrakziogile* erakusketa. Artista emakumeei leku berri bat emanaz historia horretan, bere konplexutasun eta aniztasuna agerian uzten du. Eta hori erakusketaren hasiera-hasieratik nabari daiteke, sartu-irten berri bat egiten baita XIX. mendera, Georgiana Houghtonek 1860ko hamarkadan egin zuen lana plazaratuz eta abstrakzioaren kronologia-jatorriak nabarmenduz, beren erro espiritisteraino iritsiz. Houghtonen lanak “sinbolismo sakratua” irudikatzen du, aurkezpen honetan lantzen diren gaietako bat. 1850eko hamarkadan

boladan zegoen espiritismoak abstrakziorako funtsezko bide bat suposatu zuen eta emakumeak izan ziren bere aurrendariak XIX. mendean: beraiek izan ziren abstrakzioa asmatu zutenak, berariaz abstrakzio gisa kontzeptualizatu ez bazuten arren; sinbolismo sakratu gisa definitu zuten egiten ari zirena, haraindikoa irudikatzen beren grinatik abiatuta.

Erakusketak, halaber, artista esanguratsuenak nabarmentzen ditu ere argazki txiki ezberdinen bitartez. Aipatu argazkiek, bidegabeki eklipsatuak edo European oso gutxitan erakutsiak izan diren emakume artisten garrantzia nabarmentzen dute. Erakusketarekin batera doan katalogoak emakume hauen aitortza inguratu, sustatu edo oztopatu zuten hezkuntza-, gizarte- eta erakunde-testuinguruak lantzen ditu. Erakusketak, halaber, artista askok zergatik ez zuten aitortza hori bilatu azaltzen du eta protagonisten euren jarrerak aztertzen ditu, haien konplexutasun eta paradoxa guztiakin. Zenbaitek, Sonia Delaunay-Terkek esaterako, generoaz aldenduriko posizio bat hartu zuten. Beste batzuek, Judy Chicago tartean, arte femenino bat defendatu zuten.

Emakumeen ikuspegitik aztertutako historiaren bertsio honek ezbaian jartzen du pinturan ardaztutako abstrakzioaren ikerketa. Ikuspegi moderno murriztaile hori emakumeak baztertzeko arrazoi bat izan zen hain zuzen ere, abstrakzioaren espiritismo-, ornamentazio- eta performance-dimentsioak ukatu baitzituen. Erakusketaren ikuspegia globala da, gainera. 1950eko hamarkadan Parisko eszenak izan zuen dinamismoa estilo-konbinazio harrigarrien zenbait adibideren bitartez islatu da, Saloua Raouda Choucair libanoar, Carmen Herrera kubatar-estatubatuar edo Fahrelnissa Zeid turkiarraren lanekin. Erakusketak, halaber, Latinoamerika, Ekialde Ertaina edo Asiako modernitatea esploratzen du, bai eta emakume artista afroamerikarrena ere. Azken horien ahotsek ikusgarritasun apur bat lortu zuten 1970eko hamarkadatik aurrera, mendebaldeko kanonaz haraindi joan eta beren historia ahots anitzen bitartez azaldu baitzuten.

Aurkezpen honek lantzen duen beste gai bat da ehungintzak abstrakzioaren historian izan zuten papera. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera zenbait artistak, Europa Ekialdeko eta AEBkoak gehienbat, ehun-lanak sortu zituzten, tamaina itzelekoak askotan, hormarekin baino espazioaren menderatzearekin zerikusia zutenak, eskulturarekin gertatzen den bezalaxe. Objektu hauek artisautzarekin lotzen zituen "Tapizgintza Berria" terminoak indarra galtzen joan zen apurka-apurka, "Fiber Art" edo "Ehun Arte" bezalako terminoen aurrean. New Yorkeko Museum of Modern Art-ek 1969. urtean aurkeztu zuen *Wall Hangings* erakusketan erakutsi ziren lehen aldiz, arte museo batean, aipatu ehun-artelanak. Aurèlia Muñoz artista katalandarraren lana ekarpen garrantzitsua da gai honetan.

Instalazioaren diseinuak abstrakzioaren erakusketa esanguratsuei, funtsezko emakume artistei eta kritikari ospetsuei eskainitako espazio dokumentalak hartzen ditu barne, batez ere hirurogeita hamargarren hamarkadako borroka feministen eta beren interpretazio postmodernoaren testuinguruan. Era berean, erakusketaren diziplina anitzeko ikuspegiarekin bat eginez, erreferentziazko argitalpenak eta inprimatutako materialak aurkezten dira ere..

Emakumeak abstrakziogile erakusketak, halaber, galdera ezberdinak planteatzen ditu. Lehena, gaiaren beraren inguruan: zer da abstrakzioa, zehazki? Beste batek, abstrakzioaren historian emakumeak ikusezin bihurtu dituzten zioak aztertzen ditu, egun ere indarrean baitiraute. Emakume artistak historia

independente baten barruan isolatzen jarrai al dezakegu, egiazki historia hori koral izatea eta genero-markarik ez izatea nahi badugu ere? Azkenik, aztergai ditugun emakume artisten banakako ekarpenak azpimarratu nahi izan dira, aitzindariak izan ala ez, interesgarriak baitira historia orijinal eta berezi hau kontatzeko orduan.

DIDAKTIKA

Erakusketak gune didaktiko bat du eta bertan funtsezkoak diren gaiak aurkezten dira historian zehar emakume artistek egindako lana, teosofiak lehenengo obra abstraktuen sorkuntzan izan zuen eragina, eta abstrakzioak eskaintzen dituen adierazpide ugariak ulertzeko.

Didaktika gunearen babeslea: BBK

Jarduerak erakusketaren inguruan

Mahai-ingurua (Urriak 20)

Centre Pompidou-ko arte-arduradunen buru Christine Macelek eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Lekha Hileman Waitollerrek erakusketa hau gauzatzea lortzeko azken urteotan egindako ikerketa- eta lan-prozesuak partekatuko dituzte.

Hausnarketa partekatuak

Guggenheim Bilbao Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza eta Interpretazio arloetako profesionalek gidatutako aurrez aurreko bisitaldiak, erakusketa berrien edukiari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituztenak.

- Arte-arduradunen ikuspegia (Azaroak 3)
Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun eta erakusketaren komisario Lekha Hileman Waitollerrek ibilbide bat egingo du bertan biltzen diren obra nagusietatik.
- Funtsezko kontzeptuak
Azaroak 10
Luz Maguregui, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzailea, artelanen alderdi orokor eta didaktiko nagusiez arituko da aretoetan bisitaldira bertarutzen direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Sorkuntza saioa. Argazki-formatuak: argazki-liburua (Azaroak 18)

Erakusketan biltzen diren artelanetan nabaria da artista askoren lilura liburuekiko, Natalia Goncharova edo Liubov Popovatik hasi eta Louise Bourgeois edo Lygia Paperaino. Miren Pastor argazkilariak sarrera moduan emandako tailer honetan parte hartzaileek aukera izango dute erakusketako emakume argazkilariak eta argazki-liburuen ezaugarri bereziak ezagutzeko.

Institutu Frantsesak eskainitako proiektzioa (Abenduak 10)

TopARTE programaren esparruan *Point de emergence* dokumentala proiektatuko da, Carola Roussopoulousek zuzendua eta 1978an ekoiztua Emakume pintoreen eta eskultoreen Parisko Saloirako. Proiektzioaren ondoren solasaldi bat izango da.

Emakumeak abstrakziogile: haien ahotsa eta aurpegia proiektzioak (Urtarrilak 21, 22 eta 23)

Zinema-ziklo honetan erakusketan biltzen diren hainbat artistaren nortasun liluragarriak ezagutzera emango dira, haien artean: Hilma af Klint, Natalia Goncharova, Sophie Taeuber-Arp eta Fahrelnissa Zeid, Judy Chicago, Mary Heilmann, Barbara Hepworth eta Barbara Kasten.

Katalogoa

Proiektu honetan, asmo handiko katalogoa funtsezkoa da. Katalogoak bost saiakera nagusi, gaikako beste hamabost eta artista bakoitzari eskainitako 112 testu biltzen ditu, non bakoitzaren abstrakzioaren ikuspegia eta lan egiterakoan inguruan zuten testuingurua azaltzen diren. Abstrakzioari eta historia kultural eta feministari loturiko gertakari eta ekitaldi garrantzitsuenen kronologia bat ere aurkezten du katalogoak.

Jatorrizko frantseseko bertsioa Centre Pompidouk egin zuen, Christine Macel Arte-arduradun nagusiaren eta Varsoviako Museoko Zuzendari eta Argazki-arduradun Karolina Lewandowskaren zuzendaritzapean. Ingeleserako edizioa Thames & Hudsonen koeditatu zuen eta gaztelarazko eta euskarazko bertsioa Guggenheim Bilbao Museoak koeditatu du.

Erakusketa Centre Pompidouko Arte-arduradun Nagusi Christine Macelek eta Varsoviako Museoko Zuzendari eta Argazki-arduradun Karolina Lewandowskak sortu dute; eta Guggenheim Bilbao Museoko Arte-arduraduna den Lekha Hileman Waitollerren laguntzarekin antolatu dute.

Emakume artistak

Berenice Abbott. Springfield (OH, AEB), 1898 – Monson (ME, AEB), 1991

Carla Accardi Trapani (Italia), 1924 – Erroma (Italia), 2014

Etel Adnan Beirut (Libano), 1925

Hilma af Klint Stockholm (Suedia), 1862 – Ösby, Djursholm (Suedia), 1944

Anni Albers Berlin (Alemania), 1899 – Orange (CT, AEB), 1994

Laure Albin-Guillot Paris (Frantzia), 1879 – Paris (Frantzia), 1962

APY Lands Women's Collaborative. Anangu Pitjantjatjara Yankunytjatjara lurren akronimoa da APY Lands. Lur horiek Australiako lurralde zati handi bat hartzen dute eta, bertan, hiru estatutan (Hego Australia, Ipar Lurraldea eta Mendebaldeko Australia) zehar banatzen diren zenbait komunitate aborigen bizi dira. Yaritji Young, Wawiriya Burton, Nyurpaya Kaika, Tjimpayie Presley, Naomi Kantjuriny, Angkaliya Eadie Curtis, Nyunmiti Burton, Tjungkara Ken, Tingila Young, Sylvia Ken, Wipana Jimmy, Mary Pan, Maringka Baker, Alison Milyka Carroll, Carlene Thompson, Mona Mitakiki, Illuwanti Ken, Panjiti Lewis, Tuppy Goodwin, Puna Yanima, Julie Yaltangki, Barbara Moore, Sharon Adamson, Paniny Mick, Betty Muffler, Nellie Coulthardt, Ingrid Treacle, Meredith Treacle, Anyupa Treacle, Madeline Curley, Imatjala Curley, Tjangali George, Elizabeth Dunn, Teresa Baker, Kani Patricia Tunkin.

Gertrud Arndt Racibórz (Polonia), 1903 – Darmstadt (Alemania), 2000

Ruth Asawa Norwalk (CA, AEB), 1926 – San Frantzisko (CA, AEB), 2013

Elena Asins Madril, 1940 – Azpirotz (Nafarroa), 2015

Vanessa Bell Londres (Erresuma Batua), 1879 – Charleston Farmhouse, Firle (Erresuma Batua), 1961

Lynda Benglis Lake Charles (LA, AEB), 1941

- Lee Bontecou** Providence (RI, AEB), 1931
- Martha Boto** Buenos Aires (Argentina), 1925 – Paris (Frantzia), 2004
- Louise Bourgeois** Paris (Frantzia), 1911 – New York (NY, AEB), 2010
- Trisha Brown** Aberdeen (WA, AEB), 1936 – San Antonio (TX, AEB), 2017
- Jagoda Buić** Split (Jugoslavia), 1930
- Mary Ellen Bute** Houston (TX, AEB), 1906 – New York (NY, AEB), 1983
- Marcelle Cahn** Estrasburgo 1895, (Frantzia), 1895 – Neuilly-sur-Seine (Frantzia), 1981
- Huguette Caland** Beirut (Libano), 1931 – Beirut (Libano), 2019
- Regina Cassolo Bracchi** Mede (Italia), 1894 – Milan (Italia), 1974
- Rosemarie Castoro** New York (NY, AEB), 1939 – New York (NY, AEB), 2015
- Giannina Censi** Milan (Italia), 1913 – Voghera (Italia), 1995
- Judy Chicago**, Chicago (IL, AEB), 1939
- Lucinda Childs** New York (NY, AEB), 1940
- Wook kyung Choi** Seul (Korea), 1940 – Seul (Koreako Errepublikakoa), 1985
- Irene Chou** Shangai (Txina), 1924 – Brisbane (Australia), 2011
- Saloua Raouda Choucair** Beirut (Libano), 1916 – Beirut (Libano), 2017
- Lygia Clark** Belo Horizonte, Minas Gerais (Brasil), 1920 – Rio de Janeiro (Brasil), 1988
- Carlotta Corpron** Blue Earth (MN, AEB), 1901 – Denton (TX, AEB), 1988
- Parvine Curie** Nancy (Frantzia), 1936
- Dadamaino (Eduarda Emilia Maino)** Milan (Italia), 1930 – Milan (Italia), 2004
- Sonia Delaunay-Terk** Davos (Suitza), 1889 – Zurich (Suitza), 1943
- Germaine Dulac** Amiens (Frantzia), 1882 – Paris (Frantzia), 1942
- Alice Essington Nelson** Cheltenham, Gloucestershire (Erresuma Batua), 1846 – Hove, East Sussex (Erresuma Batua), 1921
- Alexandra Exter** Białystok (Errusiako Inperioa), 1882 – Fontenay-aux-Roses (Frantzia), 1949
- Claire Falkenstein** Coos Bay (OR, AEB), 1908 – Venice (CA, AEB), 1997
- Esther Ferrer** Donostia, 1937
- Helen Frankenthaler** New York (NY, AEB), 1928 – Darien (CT, AEB), 2011
- Olga Fröbe-Kapteyn** Londres (Erresuma Batua), 1881 – Ascona (Suitza), 1962
- Loïe Fuller** Fullersburg, (IL, AEB), 1862 – Paris (Frantzia), 1928
- Gego** Hanburgo (Alemania), 1912 – Caracas (Venezuela), 1994
- Natalia Goncharova** Nagaev (Errusiako Inperioa), 1881 – Paris (Frantzia), 1962
- Marcia Hafif** Pomona (CA, AEB), 1929 – Laguna Beach (CA, AEB), 2018
- Harmony Hammond** Chicago (IL, AEB), 1944
- Mary Heilmann** San Francisco (CA, AEB), 1940
- Florence Henri** New York (NY, AEB), 1893 – Compiègne (Frantzia), 1982
- Barbara Hepworth** Wakefield, Yorkshire (Erresuma Batua), 1903 – St Ives, Kornualles (Erresuma Batua), 1975
- Carmen Herrera** Habana (Kuba), 1915
- Sheila Hicks** Hastings (NE, AEB), 1934
- Marta Hoepffner** Pirmasens (Alemania), 1912 – Lindenberg im Allgäu (Alemania), 2000
- Georgiana Houghton** Las Palmas Kanaria Handikoa, 1814 – Londres (Erresuma Batua), 1884

Lotte Jacobi Toruń (Alemaniako Inperioa), 1896 – Deering (NH, AEB), 1990
Virginia Jaramillo El Paso (TX, AEB), 1939
Tess Jaray Viena (Austria), 1937
Barbara Kasten Chicago (IL, AEB), 1936
Ilona Keserü Pécs (Hungaria), 1933
Helen Khal Allentown (PA, AEB), 1923 – Ajaltoun (Libano), 2009
Katarzyna Kobro Mosku (Errusiako Inperioa), 1898 – Łódź (Polonia), 1951
Benita Koch-Otte Stuttgart (Alemania), 1892 – Bielefeld (Alemania), 1976
Běla Kolářová Terezín (Txekoslovakia), 1923 – Praga (Txekiar Errepublika), 2010
Elaine de Kooning New York (NY, AEB), 1918 – Southampton (NY, AEB), 1989
Lee Krasner New York (NY, AEB), 1908 – New York (NY, AEB), 1984
Germaine Krull Wilda, Poznań (Alemaniako Inperioa), 1897 – Wetzlar (Alemaniako Errepublika Federala), 1985
Ida Lansky Toronto (Kanada), 1910 – Dallas (TX, AEB), 1997
Bice Lazzari Venezia (Italia), 1900 – Erroma (Italia), 1981
Verena Loewensberg Zurich (Suitza), 1912 – Zurich (Suitza), 1986
Barbara Maples Temple (TX, AEB), 1912 – Dallas (TX, AEB), 1999
Agnes Martin Macklin (Kanada), 1912 – Taos (NM, AEB), 2004
Dóra Maurer Budapest (Hungaria), 1937
Marie Menken New York (NY, AEB), 1909 – New York (NY, AEB), 1970
Joan Mitchell Chicago (IL, AEB), 1925 – Neuilly-sur-Seine (Frantzia), 1992
Nasreen Mohamedi Karachi (Pakistan), 1937 – Vadodara (NM, India), 1990
Vera Molnár Budapest (Hungaria), 1924
Marlow Moss Londres (Erresuma Batua), 1889 – Penzance, Kornualles (Erresuma Batua), 1958
Tania Mouraud Paris (Frantzia), 1942
Aurèlia Muñoz Bartzelona, 1926 – Bartzelona, 2011
Elizabeth Murray Chicago (IL, AEB), 1940 – New York (NY, AEB), 2007
Aurelie Nemours Paris (Frantzia), 1910 – Paris (Frantzia), 2005
Louise Nevelson Pereyáslav (Ukraina), 1899 – New York (NY, AEB), 1988
Vera Pagava Tbilisi (Georgia), 1907 – Ivry-sur-Seine (Frantzia), 1988
Gret Palucca Munich (Alemaniako Inperioa), 1902 – Dresden (Alemania), 1993
Marta Pan Budapest (Hungaria), 1923 – Paris (Frantzia), 2008
Lygia Pape Nova Frigurgo (Brasil), 1927 – Rio de Janeiro (Brasil), 2004
Alicia Penalba San Pedro (Argentina), 1913 – Saint-Geours-de-Mareme (Frantzia), 1982
Howardena Pindell Filadelfia (PA, AEB), 1943
Liubov Popova Krasnovidovo (Errusiako Inperioa), 1889 – Mosku (SESB), 1924
Bridget Riley Londres (Erresuma Batua), 1931
Dorothea Rockburne Montreal (Kanada), 1932
Olga Rozanova Melenki (Errusiako Inperioa), 1882 – Mosku (Errusiako Sobietar Errepublika Sozialista Federatiboa), 1918
Valentine de Saint-Point Lyon, (Frantzia), 1875 – Kairo (Egipto), 1953
Zilia Sánchez Habana (Kuba), 1926

Helen Saunders Londres (Erresuma Batua), 1885 – Londres (Erresuma Batua), 1963
Lillian Schwartz Cincinnati (OH, AEB), 1927
Monir Shahroudy Farmanfarmaian Qazvin (Iran), 1924 – Teheran (Iran), 2019
Arpita Singh Baranagar (India), 1937
Janet Sobel (Ukraina), 1893 – Plainfield (NJ, AEB), 1968
Varvara Stepanova Kaunas (Errusiako Inperioa), 1894 – Mosku (SESB), 1958
Hedda Sterne Bukarest (Errumania), 1910 – New York (NY, AEB), 2011
Gunta Stölzl Munich (Alemaniako Inperioa), 1897 – Zurich (Suitza), 1983
Sophie Taeuber-Arp Davos (Suitza), 1889 – Zurich (Suitza), 1943
Atsuko Tanaka Osaka (Japonia), 1932 – Nara (Japonia), 2005
Leonore Tawney Lorain (OH, AEB), 1907 – New York (NY, AEB), 2007
Elsa Thiemann Thorn-Mocker (Alemaniako Inperioa), 1910 – Hanburgo (Alemaniako Errepublikak Federala), 1981
Alma Woodsey Thomas Columbus (GA, AEB), 1891 – Washington, DC (AEB), 1978
Maria Helena Vieira da Silva Lisboa (Portugal), 1908 – Paris (Frantzia), 1992
Fahrelnissa Zeid Büyükkada (Turkia), 1901 – Amman (Jordania), 1991

Azaleko irudia:

Fahrelnissa Zeid

Eguzki-plaza (The Arena of the Sun), 1954

Olio-pintura mihise gainean

196 x 296,5 cm

Bilduma: Istanbul Museum of Modern Art, Istanbul, Dohaintza Eczacıbaşı Group

© Raad Zeid Al-Hussein

© Istanbul Museum of Modern Art

Argazkia: Reha Arcan

Prentsan erabiltzeko irudiak
Emakumeak abstrakziogile
Guggenheim Bilbao Museoa

Prensa irudiak. Online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa arloan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistra zaitezke kalitate handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Erakusketen zein eraikinaren argazkiak dira. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezte beharrezko materiala deskargatu ahal izateko.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, erabiltzailea eta pasahitza sartu eta zuzenean has zaitezke irudiak deskargatzen.

- Eskainitako irudiak Guggenheim Bilbao Museoa 2021eko urriaren 22a eta 2022ko otsailaren 27a bitartean ikusgai egongo den *Emakumeak abstrakziogile* erakusketari loturiko publizitate editorialerako erabiliko dira soil-soilik.
- Osotasunean erreproduzitu beharko dira, inolako mozte, gaininpresio edo manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera egilearen izena, izenburua eta lanaren data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua jaso beharko dira.
- Online argitaratutako irudiak beharrezko segurtasun elektronikoko neurrien bitartez babestu beharko dira.
- Edozein argazki 1000 pixeleko gehieneko bereizmena izan dezake alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatua egon beharko du eta ezingo da deskargatu.
- Debekatua dago irudiak hirugarrenen esku edo datu-base baten esku uztea.
- Azalerako irudien erabilerak kosturen bat ekar lezake. Aipatu erabilerarako, artelanaren jabearen eta copyrightaren titullarraren aurretiko baimena lortu beharko da.

Informazio gehiagorako, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko Prentsa Arloarekin, +34 944 359 008 telefonora deituz edo media@guggenheim-bilbao.eus helbidera idatziz.

Sophie Taeuber-Arp l'Aubetteko bere bulego-tailerrean (Sophie Taeuber-Arp dans son atelier-bureau de l'Aubette), 1927
Collection Fondation Arp, Clamart



Fahrelnissa Zeid bere tailerrean (Fahrelnissa Zeid dans son atelier)
© Raad Zeid Al-Hussein



Monir Shahroudy Farmanfarmaian bere tailerrean, Heptagono-izarra artelanarekin lanean, Teheran (Monir Shahroudy Farmanfarmaian in her studio, working on Heptagon Star, Tehran), 1975

Estate of Monir Shahroudy Farmanfarmaian



Tess Jaray

San Esteban berdea (St Stephen's Green), 1964


Olio-pintura mihise gainean

183 x 152 cm

Centre Pompidou, Musée national d'art moderne, Paris, Centre Pompidouren Lagunen dohaintza, Cercle International, 2020

© Centre Pompidou, MNAM-CCI/Audrey Laurans/Dist. RMN-GP

© Tess Jaray, VEGAP, Bilbo, 2021



Judy Chicago

Kezko gorputzak (Smoke Bodies), Emakumeak ketan, Kalifornia (Women in Smoke, California), 1971-72

H.264 filma, MP4, koloretan, mutua, 14 min 45 s

Eskaintza: artista eta Salon 94 (New York)

Eskaintza: Through the Flower Archives, The Center for Art + Environment at the Nevada Museum of Art, Salon 94 eta Artist Rights Society

© Judy Chicago

© Judy Chicago, VEGAP, Bilbo, 2021



Joan Mitchell

Mefisto (Méphisto), 1958

Olio-pintura mihise gainean

182 x 165 cm

Centre Pompidou, Musée national d'art moderne, Paris, dohaintza, 1995

© Estate of Joan Mitchell

© Centre Pompidou, MNAM-CCI/Jacques Faujour/Dist. RMN-GP



Vera Pagava

Hiri handia (La Grande Ville), 1959

Olio-pintura mihise gainean

146 x 116 cm

Centre Pompidou, Musée national d'art moderne, Paris, dohaintza: Elisso Tarassachvili andrea, 2016

© Association culturelle Vera Pagava

© Centre Pompidou, MNAM-CCI/Georges Meguerditchian/Dist. RMN-GP



Helen Saunders

Canon, ca. 1915

Arkatza eta gouachea paper gainean

36,8 x 29,8 cm

The David and Alfred Smart Museum of Art, The University of Chicago, erosketa,
The Paul and Miriam Kirkley Fund for Acquisitions eta dohaintza: Lorna Ferguson eta
Terry Clark Richard Born-en omenez

© Estate of Helen Saunders

© 2000 Eskaintza: The David and Alfred Smart Museum of Art, The University of Chicago



Georgiana Houghton


Arte espiritualistako albuma (Album of Spirit Art), 1866-84

G. Houghton eta beste artista batzuen akuarelak biltzen dituen albuma

49 x 42 x 3,5 cm

The College of Psychic Studies, Londres

Irudia, Londresko The College of Psychic Studiesen eskaintza



Barbara Kasten

METAFASEA 3 (METAPHASE 3), 1986

Cibachrome

101,6 x 76,2 cm

Eskaintza: artista eta Bortolami Gallery (New York)

Irudiaren eskaintza: Barbara Kasten eta Bortolami Gallery (New York); Thomas
Dane Gallery (Londres); Kadel Willborn Gallery (Düsseldorf)

© Barbara Kasten



Huguette Caland

Gorputz zatiak (Bribes de corps), 1973

Olio-pintura lihozko mihise gainean

149,9 x 149,9 cm

Eskaintza: Caland familia

Argazkia: Elon Schoenholz



Saloua Raouda Choucair

Zatiki-modulua (Fractional Module), 1947-1951

Olio-pintura mihise gainean

47 x 67 cm

Saloua Raouda Choucair Foundation

© Saloua Raouda Choucair Foundation, Beirut

© Galerie Saleh Barakat



Hilma Af Klint

Beltxarga, 16 zk., IX/SUW taldea (The Swan, No. 16, Group IX/SUW), 1915


Olio-pintura mihise gainean

154,5 x 151 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation

© Hilma Af Klint, VEGAP, Bilbo 2021

Argazkia: Moderna Museet, Stockholm



Barbara Hepworth

Eskultura obalatu (2. zk.) [(Oval Sculpture (No. 2)], 1943, molde-lana: 1956

Igeltua zurezko oinarri gainean

29,3 x 40 x 25,5 cm

Tate, artistaren dohaintza, 1967

© Bowness

© Tate



Fahrelnissa Zeid

Eguzki-plaza (The Arena of the Sun), 1954

Olio-pintura mihise gainean

196 x 296,5 cm

Bilduma: Istanbul Museum of Modern Art, Istanbul, Dohaintza Eczacibasi Group

© Raad Zeid Al-Hussein

© Istanbul Museum of Modern Art

Argazkia: Reha Arcan

